

# Kolokan

Aintzane Usandizaga Lopez



Zumaiako Udala

*emskara  
txanpan*

# Kolokan

Aintzane Usandizaga Lopez

Julene Azpeitia 27. ipuin lehiaketa

2014

1. saria

2014ko abenduan digitalizatutako ipuina.

© Aintzane Usandizaga Lopez (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Uste dut bi pauso eman behar ditudala berak bat ematen duen bakoitzean. Batzuetan hiru, handiak badira. Bera mantso-mantso ibiltzen da baaaaat, biiii, baaaat... baina nik korrika txikian jarraitu behar diot: bat-bi, bat-bi... Bestela atzean geratzen naiz, eta tira egiten dit besoak.

Amari begiratu diot ibiltzen hasi aurretik. Ez dit ezetz esan, aurpegi arraroa jarri du baina ez dit ezetz esan, eta ni poz-pez jarri naiz, ze beti gustatzen zait lehengusinarekin joatea, familiako beste edozeinekin baino gehiago, amonarekin baino gehiago. Baina hori ez diot amari esango. Berari ere gustatzen zaio nirekin joatea, ze beti eskutik eusten dit bere ondoan egoteko edo berarekin ibiltzeko. Nik ez diot ezer esaten baina berak, hala ere, eskutik eusten dit segituan. Beti. Ikusten garen beti guztietan, esan nahi dut.

Gaur ere segituan eutsi diot eskutik. Baina ez dit ezer esan. Normalean berak esaten dit zerbait, nik berari gutxiago, lotsatu bezala egiten naiz, ze makurtu egiten da eta oso gertu jartzen du aurpegia, nirearen aurre-aurrean. Baina gustatzen zait. Eta eskutik eusten didanean pozik jartzen naiz, ezer esaten ez dudan arren. Eta berak jarraitzen du beti, ikusten banau, eskutik eusten.

Gaur azkarrago ibiltzen da hala ere, besoak tira egiten dit jada pixka bat, eta uste dut lau pauso egin ditudala hasieran. Baina ez diot ezer esan, ezta pixka bat tira egin didala ere. Lotsa ematen dit, eta ez dut nahi berriro makurtzea, nire sudurraren parean jarrita "Ene, mina egin al dizut, politta?" galdetuko dit bestela. Gainera, azkar gelditu da.

Beti geratzen da lehengusina jendearekin hitz egiteko. Berarekin kaletik noanean, norbait pasatzen da eta, bat-batean, ez da ibiltzen ari. Orduan, askotan eskua askatzen du, ze asko mugitzen ditu hitz egiten duenean. Kanporantz mugitzen ditu biak, bakoitza alde batera. Eta gero azkar eusten dit eskua. Baina berriro askatzen du segituan kanporantz mugitzeko berriro.

Oraingoan ere hitz egiteko gelditu da, baina ez ditu eskuak mugitu. Baxu-baxu hitz egiten du eta nire eskua eusten jarraitu du. Xuabe-xuabea du eskua. Bere atzazala sumatzen dut nire erdiko atzamarrean, baina ez dit minik ematen. Eta beste eskuarekin soinekoaren oihala zimurtzen du. Baina uste dut hortaz ez dela konturatzen. Txuri-txuria da bere soinekoa. Beno, ez, agian apur bat horia ere bada. Amonaren egongelako gortinak bezala. Garrasi egiten dio osabari, haien ondoan erretzen duelako kolore hori dutela esanez. Osabak marmarka erantzuten dio beti bezala, ez du garbi hitz egiten, hortz artean erabiltzen ditu hitzak, txikle bezala. Amonak ez ditu nire txikle arrosak gogoko, ezta osabaren zigarro zikinak ere; hala hots egiten die: "sucios".

Baina lehengusinarekin jantzia polita da, oso polita, kolorean bakarrik du amonaren gortinen antza. Nirea ez da hain polita. Beltza da. Bel-beltza, hemendik zapatak non diren ere ezin dut ikusi... hauek ere beltzak direlako. Eta leotardoak. Eta baita zorua ere.

Ez zen hau pasako zapata gorriak ekarri izan banitu.

–Hemen eseriko gara, politta.

Hala deitzen dit beti, “politta” eta eskutik heltzen dit. Tt-rekin esaten du “politta”, ez t-rekin aitak bezala. Aitak matraka ere deitzen dit batzuetan, gehiagotan uste dut, baina ez gaizki portatzen naizenean, ondo portatzen naizenean, brometan bezala. Eta amak “*cariño*”. Baina gaur ez dit “*cariño*” esan, ze haserretu egin da, pixka bat bakarrik baina bai, zapatak jarri nahi ez nituenean. Nik gorriekin etorri nahi nuen.

Seguru berari ere hauek baino askoz gehiago gustatuko zitzaizkiola. Eta hobeto ikusiko ziren lur ilun honetan. Orain ez dakit oinak non ditudan ere. Amari esan beharko nioke. Baina amak hots hori egingo luke mihiarekin, zapata gorriak ipini nahi nituela esan diodanean atera duen hots berdin-berdina. Eta aski da hori. Zapata beltzekin etorri naiz.

Hala ere, bera da kolore zuri-hori arraro hau daraman bakarra... beste denak ere beltzez jantzirik daude. Guzti-guztiak. Bueno ez, hango hark grisa du jaka. Baina gris itsusi samarra da. Zikina bezala.

Horregatik ikusten da hainbeste hemen bera, nire lehengusina guapa.

“*La prima guapa*”, hala deitzen dio aitak. Arrazoia du, amak mihiarekin hots hori egiten badu ere. Guapa-guapa da lehengusina, eta soineko dotoreak daramatza beti, amonaren gortinen kolorekoak badira ere. Niri gorria gustatzen zait gehien. Lokarriak dituen zapatekin ipintzen duena. Seguru nire zapata gorriak maiteko zituela lehengusinak, eta ez jantzita ditudanak.

Nola maiteko ditu hauek! Ez dira ikusten eta!

Azkura ematen dit erdiko atzamarrean. Baina berdin zait. Xuabe-xuabea da bere eskua. Begiak ireki ditu, ilunak dauzka, zorua bezala, eta azkar-azkar kliskatzen ditu. Konturatu da azkura egin didala ze begiratu egin nau. Txuriz jantzita ere gorri-gorri pintatzen ditu ezpainak. Zangoetan lotzen dituen zapatak bezala. Ez dit eskua askatu. Baina jada ez dit azkura ematen. Besoa astindu dit pixka bat, eta ahoa mugitu du. Uste dut irribarre egin nahi zuela.

Soineko txuri-horia gorria baino luzeagoa da. Baina ez da hain polita. Eta zapatak ez dira bernetan lotzen. Baina nireak baino politagoak dira. Zurbil du aurpegia lehengusina guapak gaur. “*Tiene nariz de buitre*”. Hori esaten du amaren beste lehengusinak. Lehengusina guapa ere amaren *prima* da baina nik ere lehengusina deitzen diot, ez dakit zergatik. Aitak zehar-zehar begiratzen dio beste *primari* halakoetan, lehengusina guapaz zerbait esaten duenean. Eta mihiarekin hots hori ere egingo lioke amak erakutsiko balio, seguru.

Zintz egin du lehengusina guapak bere *nariz de buitre* apurtxo bat altxatuz. Niri gustatu egiten zait. Orintxoak ditu sudurrean, nik masailetan bezala. Baina zuri dago gaur.

Eskua estutu dit. Eta kili-kili egin dit pixka bat atzamarrean. Geldi-geldi egon naiz, ze ez dut askatzea nahi. Beherago begiratu du lehengusinak, lur beltza baino beherago begiratzen duela ematen du. Ez dakit nora. Maite du nire eraztuna. Jolasean dabil harritxoarekin. Horregatik egiten dit kili-kili. Baina ez naiz mugituko. Bestela eskua askatuko du eta xuabe-xuabea da bere eskua.

“Luis Angel Tejedor gizon langilea zen....”

Beldurtu egin nau apaizak. Eta bera ere bai, lehengusina ere bai, zeren salto txiki bat bezala egin du eta begiak kliskatu ditu azkar-azkar hiru aldiz, eta berriro behera begiratu du gero. Lurra baino beherago beste behin. Kilima handia egiten dit orain baina ni ez naiz mugituko. Soineko txuria ukituko du sudurrarekin laster. Ilearekin ezin diot aurpegia ikusi. Eta gero eta azkura handiagoa eragiten dit. Fuerte-fuerte hasi da arnasa hartzen, oso altu. Gora eta behera egiten dio soinekoak lepoaren azpian, gora eta behera. Ez dizkiot ia ikusten ezpain gorri-gorriak, estutuak ditu.

Amak dio negar egitea ez dela txarra. Ez dela lotsatzekoa. Eta amak askotan egiten du negar, aita ez dagoenean batez ere. Aitari ez zaio gustatzen inork negar egitea. Nik uste lehengusinari ere ez zaiola gustatzen, ze beti poz-  
pozik ikusten dut. Beti irribarrez hortz txuriekin eta ezpain gorriekin. Igual lotsa ematen dio eta horregatik ezkututzen du aurpegia eta hartzen du arnas fuerte-fuerte, aguantatzeko. Nire gelako mutil batek berdina egiten du beti negar egiteko gogoia duenean, baina ez zaio ondo ateratzen. Azkenean beti ikusten dugu negarrez. Nik ere negar asko egiten dut. Haserre nagoenean batez ere. Ez dit lotsa ematen normalean, bueno, etxean ez. Gainera, aita ez da nirekin asko haserretzen negar egiten badut, amarekin gehiago.

"...eman bakea elkarri"

Eskua askatu dit eta magalean heldu ditu biak. Soinekoan igurtzi ditu. Fin-finak dira bere atzamarrak. Buelta eman du lehengusina guapak atzeko ilarakoei bakea emateko eta ez du ematen negarrez dagoenik.

Berak ez dauka eraztunik. Dardara egiten diote eskuek. Bitxia da. Nireak ez dira horrela mugitzen. Eta nik eraztuna dut, lehengusina guapari ondo geratuko zitzaien nire eraztuneko harri txuria soineko hori-txuriarekin...

-Zergatik ez diozu bakea eman nahi osabari, politta?

Eta perla? Non dago harritxo txuria? Amak perla deitzen dio eta aitak esaten dio ezetz, ez deitzeko perla. Baina perla politagoa da harria baino. Eta inportanteagoa ematen du, gainera, eta nire eraztuna inportantea da, zeren, amak bakarrik elizara noanean uzten dit jartzen eta gaur ere justu-justu. Baina nik ekarri nahi nuen, ze beltz-beltza ez zen gauza bakarra zen, baina amak ez zidan utzi nahi, "*la piedra está al caer*" esan dit amak, baina nik jarri nahi nuen. Eta ez du mihiaren hotsa egin, eta nik orduan berriro esan diot ekarri nahi nuela, ez nuela galduko.

-Ondo al zaude?

Eta ez dut nik galdu lehengusina guapak galdu du, baina ez diot esan nahi ze tristatu egingo du bel-beltza ez zen gauza bakarra bere erruz galdu dudala jakiteak. Bueno bere erruz ere ez, ze nahi gabe egin du, baina amari ere ez diot esan nahi zeren "*me lo ha perdido la prima guapa*" esaten badiot, mihiarekin hots egingo du berriro eta gero begiak txiki-txiki jarriko ditu eta...

-Vámonos hacia fuera cariño, que ya ha acabado.

Baina nik ez diot amari eskua eman nahi, eta geldi-geldi geratu nahiz lur beltz eta ilunari itsatsita. Eta amak arraro begiratu nau, eta lehengusina guapak ere bai, bere soineko txuri- horiarekin, aho gorria irekita. Amari keinu bat egin dio eta isilik daude biak niri begira.

-¿Qué te pasa?

Arraroa da amaren ahotsa ere eskutik heldu didanean, eta azkura egin dit eraztuna ukitzean eta negarrez hasi naiz. Negarrez hasi naiz, eta amari esan nahi diot nik ez dudala harria galdu edo perla, perla inportanteagoa delako eta lehengusina ibili dela jolasten berarekin, lehengusina guapa, baina ez egiteko hotsik mihiarekin ez duelako nahita egin, eta xuabe-xuabea duela gainera eskua eta nire eraztuna gustatzen zaiolako egin duela, niri bere zapata gorriak gustatzen zaizkidan bezala, zinta luzeekin, ez zekiela harria zegoela *al caer...* Baina negar asko egiten dut batera eta ezin izan diot ezer esan.

–Tranquila cariño, vámonos a casa.

Eta xuabe-xuabea du orain amak boza, lehengusina guaparen eskuak bezala, eta irribarre egin dio berari, gainera, eta nik soineko txuri-horia duelako mihiaz hotsa aterako ziola uste nuen.

–Vamos a comprar una palmera de chocolate, ¿te apetece? –galdetu dit eta seguruenik aitak arrazoia izango du–. Eso sí, para después de cenar.

Ez zen perla izango eraztunean kolokan zegoen harritxo.